

Mungian, 2018ko urtarrilak 10

Mungiako ostalariei:

2018ko Inauteriak dirala eta, Mungiako Udalak eta Mungialdeko Behargintzak, Mungiako Merkataritza eta Ostalaritza Alkartearen laguntzagaz, **“Mungiako Ostalaritza Inauterietan” III. Lehiaketa** antolatu dogu eta, honen bidez, bertan parte hartu daizun animatu gura zaitugu.

Helburua Mungian festa-giroa sortzea eta jenteak inauteri-jaiez gozatzea da, herriko ostalaritzako lokaletan sortzen dan jai giroa aprobetxatuta. Aurtengo inauterietarako gaia hauxe izango da: **“KIROLAK”**.

Lehiaketan **sari bi** banatuko dira: bat epaimahaiak aukeratutako **“lokalik onena”**ren saria (500€ + garaikurra) eta beste bat publikoaren **“lokalik gogokoena”**ren saria (400€ + garaikurra). Botazinoan parte hartuko daberen pertsona guztien artean **lagun birentzako asteburuko egonaldi bat** zozkatuko da.

Parte hartuko daberen tabernek apainduta egon beharko dabe, gutxienez zezeilaren 10ean (zapatua), 19:00etan hasi eta lokala itxi arte. Ganera, lokal parte-hartzaileak girotzeko kale animazioa egongo da 19:30-22:30 tartean.

Izena emotea **doakoa** da eta urtarrilaren 10etik 22ra egin ahal izango da (biak barne) 94 615 62 44 edota 94 674 09 52 telefono zenbakietara deituta edo [merkataritza@mungialdeko-behargintza.com](mailto:merkataritza@mungialdeko-behargintza.com) edota [odc@comerciomungia.com](mailto:odc@comerciomungia.com) helbideetara idatzita.

Oraingo aukera hau bere aprobetxatu egin gura dogu zure negozioetik herria promozionatzeko egiten dozun behar handi hori eskertzeko, eta gonbidatu egiten zaitugu aurtengo Inauterietan Mungiako tabernarik **“kirolariena”** izan zaitez.

A la hostelería de Mungia:

Con motivo del Carnaval 2018, desde el Ayuntamiento de Mungia y Mungialdeko Behargintza, con la colaboración de la “Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Mungia” hemos organizado el **III. Concurso de Hostelería Carnavalera de Mungia** y queremos animarte a participar.

El objetivo no es otro que generar ambiente en Mungia e invitar a la gente a disfrutar del Carnaval en el mejor ambiente festivo que se respirará en la hostelería del pueblo. La temática de este año es **“DEPORTES”**.

En el concurso se entregarán dos premios: uno al **“mejor local”** según criterios del jurado (500€ + trofeo) y otro al **“local favorito”** del público (400€ + trofeo). Entre todas las personas que participen en la votación popular se sorteará **una estancia de fin de semana para dos personas**.

Los establecimientos que participen deberán estar decorados como mínimo desde las 19:00 horas del día 10 de febrero (sábado) hasta el cierre del local. Además, de 19:30 a 22:30 habrá animación callejera en los establecimientos participantes.

La **inscripción** en el concurso es **gratuita** y se podrá realizar del 10 al 22 de enero (ambos inclusive) llamando al 94 615 62 44 o al 94 674 09 52 o en [merkataritza@mungialdeko-behargintza.com](mailto:merkataritza@mungialdeko-behargintza.com) o [odc@comerciomungia.com](mailto:odc@comerciomungia.com).

Una vez más, queremos aprovechar esta ocasión para agradecerle la importante labor que se realiza desde tu negocio para la promoción del municipio e invitarte a convertirte en el local más **“deportista”** de Carnavales de Mungia.

## MUNGIKAO OSTALARIK INAUTERIE TAN II. LEHIAKETAREN OINARRIAK

**1. HELBURUA:** 2018ko Inauteriak laster izango dirala-eta, sasoi horri jagokon festa-giroa sortzea Mungian, kaleetan zein ostalaritzako establezimenduetan jente gehiago ibili daiten joan-etorrietan zein kontsumitzen.

**2. NORENTZAT:** Mungiaiko taberna guztientzat.

**3. IZEN EMOTEAK:** **urtarrilaren 10etik 22ra** emon ahal izango da izena (biak barne). Lehiaketa hau **doakoa** izango da eta izena emoteko modu bi egongo dira: a) Telefonoz deitza: 946156244 edo 946740952; edo b) Mezu elektronikoko bat bidaltza: [merkataritza@mungialdeko-behargintza.com](mailto:merkataritza@mungialdeko-behargintza.com) edo [odc@comerciomungia.com](mailto:odc@comerciomungia.com).

**4. PARTE-HARTZEKO BALDINTZAK:** lehiaketa hau egin ahal izateko, beharrezkoa da **gitxienez 8 taberna parte-hartzaile** egotea. Parte hartuko daben taberna guztiek apainduta egon beharko dabe **zezeilaren 10ean (zapata), 19:00etan** hasi eta lokala itxi arte.

**5. GAIA: KIROLAK**

**6. SARIAK:** Lehiaketa honetan ondoko sariak banatuko dira:

- **Lokalik onena** (epaimahaiak erabagiko dau): garaikurra + 500€
- Publikoaren **lokalik gogokoena**: garaikurra + 400€

Ganera, botazinoan parte hartuko daben pertsona guztien artean bi pertsonarentzako asteburuko egonaldia bat zozkatuko da.

**7. EPAIMAHAI A:** epaimahaiko kideak:

- Mungiaiko Udaleko kide bat
- Mungiaiko Merkatari eta ostalarien Alkarteko kide bat
- Dekorazinoan eta artean aditua dan pertsona bat

Epaimahaiak, zezeilaren 10ean (zapata; 19:00etatik aurrera), lehiaketa honetan parte hartzen daben establezimenduak bisitatuko ditu, egindako lana baloratzeko. Kontuan hartuko diranak: **mozorroa, lokalaren dekorazioa eta lokalean sortutako giroa.**

**8. HERRITARREN ERETXIA:** publikoaren lokalik gogokoena zein dan jakiteko, Facebook aplikazioan perfil bat zabalduko da: "OSTALARIK INAUTERIE TAN / HOSTELERÍA CARNAVALERA". Bertan bezeroek euren botoa emon ahal izango dabe zezeilaren 10etik (zapata; 22:00etatik aurrera) zezeilaren 14ra arte (asteazkena; 10:00ak arte). Aplikazioan datuak ondo sartu beharko dira, bestela, botoa ez da-eta ontzat emongo. Pertsona bakotzak boto bakarra emon ahal izango dau.

**9. ESTABLEZIMENDU PARTE-HARTZAILEEN ARGAZKIAK:** herritarren eretxia jakiteko argazkiak igoko dira "OSTALARIK INAUTERIE TAN / HOSTELERÍA CARNAVALERA" Facebook-eko profilean. Arazoak ekiditeko, **zuen lokalaren hiru argazki bidaltzeko eskatzen dizuegu zezeilaren 10eko 20:30ak baino lehen (lokaleko ambientazioa, mozorroak eta dekorazioa erakusten diren argazkiak)**. Osterantzean, antolatuzak erabakitako argazkiak publikatuko dira. Argazkiak whatsapp bidez bidaltzeko telefono zenbakiak: MMOE 688657189 / MB 688644526

**10. SARI BANAKETA:** lokal irabazleei telefonoz deituko zaie emaitzaren berri emateko zezeilaren 14an (asteazkena). Sari-banaketa lokal irabazleetan egingo da eta emaitza Mungiaiko Udalaren Facebook-ean, Mungiaiko Merkatari eta Ostalarien Facebook-ean eta prentsan agertuko da.

**11. PUBLIKOAREN SARIAREN ZOZKETA:** botazinoan parte hartu daben pertsonentzako asteburuko egonaldien zozketa zezeilaren 14an (asteazkena), 12:00etan, zozkatuko da Mungiaiko Merkatari eta Ostalarien Alkartean egoitza (Atzekaldeta, 6). Botoa emon daben pertsona guztiek prozedura ondo bete dabela egiaztatuko da, eta ostean, pertsona horreen izenakaz zerrenda bat osotuko da "random.org" tresna informatikoa erabili ahal izateko zozketarako.

**12. OINARRIAK ONARTZEA:** Lehiaketa honetan parte hartzen dabenek oinarri guztiak onartu beharko dabez. Aurreikusi bako edozer gertatu ezker, antolatzaileak izango dira erabagiak hartuko dabezanak. Epaimahaiaren erabagia apelaezina izango da.

## BASES DEL II. CONCURSO HOSTELERÍA CARNAVALERA DE MUNGI A

**1. OBJETIVO:** generar ambiente en Mungia con motivo de las fiestas de Carnaval 2018, aumentando el flujo peatonal en las calles del pueblo, así como de la clientela en la hostelería del municipio.

**2. DIRIGIDO A:** podrán participar todos los establecimientos hosteleros de Mungia.

**3. SOLICITUDES DE INSCRIPCIÓN:** el plazo de inscripción está comprendido entre el **10 y 22 de enero (ambos inclusive)**. Las inscripciones serán **gratuitas** y se formalizarán llamando al 946156244 o al 946740952 o escribiendo a [merkataritza@mungialdeko-behargintza.com](mailto:merkataritza@mungialdeko-behargintza.com) o [odc@comerciomungia.com](mailto:odc@comerciomungia.com)

**4. CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN:** el concurso se celebrará siempre que existan un **mínimo de 8 establecimientos participantes**. Todos los establecimientos participantes deberán estar decorados como mínimo desde las **19:00 horas** del día **10 de febrero (sábado)** hasta el cierre del local.

**5. TEMÁTICA: "DEPORTES"**

**6. PREMIOS:** en el concurso se entregarán los siguientes premios:

- Premio al **"Mejor local"** según criterios del jurado: **trofeo + 500€**
- Premio al **"Local favorito"** del público: **trofeo + 400€**

Además, entre todas las personas que participen en la votación popular para escoger su "local favorito" se sorteará una estancia de fin de semana para dos personas.

**7. JURADO:** el jurado estará compuesto por:

- 1 persona del Ayuntamiento de Mungia
- 1 persona de la "Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Mungia"
- 1 persona experta en decoración y arte

El jurado visitará los establecimientos participantes el día 10 de febrero (sábado) a partir de las 19:00 horas para valorar el esfuerzo realizado. Se valorarán los **disfraces, la decoración y la ambientación** del local.

**8. JURADO POPULAR:** para el premio **"Local favorito"** del público, se habilitará un perfil de Facebook "OSTALARIK INAUTERIE TAN / HOSTELERÍA CARNAVALERA" en el que la clientela podrá dar su voto siguiendo las indicaciones pertinentes desde las 22:00 horas del 10 de febrero (sábado) a las 10:00 horas del 14 de febrero (miércoles). La aplicación de Facebook deberá estar correctamente rellanada dado que si los datos están incompletos, no se considerará válido. Solo se tendrá en cuenta una votación por persona.

**9. FOTOS ESTABLECIMIENTOS PARTICIPANTES:** para la votación popular se publicarán fotos de los establecimientos participantes en la página de Facebook "OSTALARIK INAUTERIE TAN / HOSTELERÍA CARNAVALERA". Para evitar problemas, **os pedimos que nos enviéis tres fotos de vuestro local antes de las 20:30 horas del sábado 10 de febrero (Fotos de la ambientación del local, la decoración y los disfraces)**. De lo contrario, se publicará la foto que decida la organización. Números de teléfono a los que se podrán enviar las fotos por whatsapp: ACHM 688657189 / MB 688644526

**10. ENTREGA DE PREMIOS:** a los establecimientos ganadores se les notificará el resultado por teléfono el 14 de febrero (miércoles) y la entrega de premios se realizará en los dos locales ganadores. El resultado se publicará en el Facebook del Ayuntamiento de Mungia, *Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Mungia* y prensa.

**11. SORTEO DEL PREMIO DEL PÚBLICO:** el sorteo de la estancia de fin de semana para las personas que hayan participado en la votación popular se realizará el 14 de febrero a las 12.00h en la "Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Mungia" (Atzekaldeta, 06). Entre todas las personas que hayan dado su voto se revisará que lo hayan hecho correctamente, numerando e incorporando a un listado para poder hacer luego la votación utilizando la herramienta random.org.

**12. ACEPTACIÓN:** la participación en este concurso conlleva la aceptación de estas bases. En caso de cualquier imprevisto será la organización quien tome la decisión final. El fallo del jurado será inapelable.